

# Euskalingua 24

## Aurkezpena

Irakurle on hori,

*Euskalingua 24*k lau artikulu ditu eta eurotan, hurrenez hurren, fonetika-fonologia, dialektologia historikoa eta ahozko literatura gaiak aurkitu daitezke. Lehenengoan L. Gandarias, J. Plaza eta I. Gamindek fonetika eta fonologiaren alorrean kokatuta, txistukarien ahoskera lantzeari ekin deutsee. Bigarrenean, J. Rekaldek Ulpiano Uriarte arratiarraren eskuizkribuaren lehen edizioaren argitalpen kritikoa eta adibideak ekarri ditu eta, eskuizkribu horretan oinarrituta, XX. mendearen hasierako Arratiako berbetearen ezaugarri batzuk argitan ipini. Hirugarrenean, J. Iturbek 1909an argitaratutako *Nezazariyen cartillachua* bigarren edizioaren testua eta aipamen kritikoa dituen artikulua eskaini dau. Bosgarrenean, L. Unamuno eta M. Unamunok euskal ume kanten bilduma bat aurkeztu dabe eta letrekin batera, ahots erregistroa jarri dabe entzungai.

Leire Gandarias, Jone Plaza eta Iñaki Gamindek Lekeitioko gaurko hiztun gazteen kontsonante txistukarien ezaugarriak hartu ditue aztergai. Lekeitioko neska eta mutil gazteek ekoizten dituen txistukarien azterketa artikulatarioa (palatograma estatikoak eta linguogramak) eta akustikoa egin dabe; soinu batzuen azterketa akustikoan hiztunaren sexuaren eragina ete dagoen somatzen bada ere, artikularen ondorioetan adierazi dabenez, informanteok argi bereizten ditue txistukariak euskararen hots sistemaren hiru serieetan.

Juan Rekaldek artikulu honetan *Libro de las Eselencias del año 1902* izenez Ulpiano Uriartek idatzitako eskuizkribuaren argitalpen kritikoa egin dau. Artikulugileak dinoenez, 1863an Bilbon argitaratutako *Devoción de la corona de las doce estrellas de María Santísima para los ejercicios del mes de Mayo y Novena a su Corazón Santísimo e Inmaculado* delakoaren zati baten itzulpena egin eban Uriarte arratiarrak. Hamasei orriko dokumentu horretan, Ama Birjinaren eszelentziak itzuli zituen gaztelaniatik euskarara; gai erlijiosoa baino haratago, XX. mendeko Arratiako bizkaieraren testigantza zuzena jaso daiteke itzulpen honetatik. Rekaldek, eskuizkribuaren transkripzio zuzena eta transkripzio gaurkotuez gain, fonologia, morfologia, aditza, sintaxia eta lexikoa hartu ditu kontuan.

Jacinto Iturbek Jose María Ampueroren *Nezazariyen cartillachua Bizcaico eusqueran* izenekoaren bigarren edizioa, 1909ko argitalpena, hartu dau aztergai eta beronen kopia eskaintzen da artikulu honetan. Iturbek egilearen datu biografikoez gain, ortografia, lexikoa eta hizkuntzari buruzko beste zenbait datu aipatzen ditu eta, horregaz batera, XX. mendearen hasierako kulturara eta nekazaritza arloaren ezagutzara hurbiltzen gaitu. Bestalde, liburu honen ehun eta zortzi orriak irakurtzeko aukera gozagarria dogu aurrean, batez ere, labore eta ortuariak lantzeko jarraibideak eta urteko zereginak hilabeteka.

Lorea Unamuno eta Maribi Unamunok *Ume kantak* lanean umeei kantatu izan ohi jakezan kantak bildu eta ahotsean editatu ditue. Hogeita lau unitate dira entzun-irakurgai, jaiobarri direnetik aurrera ume denbora guztian kantatu izan jakezanak, dala lo eragiteko, dala umeagaz olgetako, dala umea olgatu dagian, dala hizkuntza, gorputza, ingurua, imaginazioa, etab. erabili dagizan. Ume txikiak dituen familiako kidea, haurtzaindegiko zaintzailea, haur eskolako irakaslea eta irakasle ikasketak egiten dabilen ikaslea bera ahaztu barik, autoreok artikularen irakurlea dabe kanta honek gaurko umeenganaino heltzeko kanal edo bidetzat.

*Euskalingua 24*ko artikuluen gaiei eta eurotatik jaso daitekeen informazioari interesgarri baizen baliagarri iritziko deutsezulakoan, hurrengo zenbakira arte agurtzen zaitut

Aulesti, 2014ko maiatzak 15

Maribi Unamuno

Editorea

victoria.unamuno@ehu.es